ANOETAKO UDALA

BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN AGIRIA

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES

ALKARTASUNA TABERNA-JATETXEA USTIATZEKO KONTRATUA
CONTRATO PARA LA EXPLOTACIÓN DEL BAR-RESTAURANTE ALKARTASUNA

Esp. Zk. / Expte. Nº: 2026KAPI0006

1. KONTRATUAREN XEDEA / OBJETO DE CONTRATO

Anoetako Udalaren jabetzakoa da "Alkartasuna" izeneko taberna-jatetxea, San Juan kaleko 6. C-D eraikinaren behealdean dagoena.

El Ayuntamiento de Anoeta tiene como propiedad el bar-restaurante conocido como "Alkartasuna" situado en los bajos del edificio de la calle San Juan 6 C-D.

Dokumentu honen xedea da Zerbitzuak emateko kontratu baten bidez egitea udalaren lokalaren instalazioak taberna-jatetxe gisa ustiatzeko, kudeatzeko eta mantentzeko kontratazioa, zerbitzuak ematean produktu propioak erabiliz.

El objeto del presente documento es el otorgamiento de una concesión de servicios para la contratación de la explotación, gestión y mantenimiento de las instalaciones del local municipal como bar-restaurante, con productos propios en la prestación de sus servicios.

Halaber, esleipendunaren eskura jarriko da horretarako prestatutako kanpoko guneko terraza.

Asimismo, se pondrá a disposición del adjudicatario la terraza de la zona exterior habilitada para ello.

Kontratuaren xede diren prestazioak identifikatzeko kodeak: CPV: 55100000 Ostalaritzako zerbitzuak.

Códigos de identificación de las prestaciones objeto del contrato: **CPV**: 55100000 Servicios de hostelería.

2. ESLEIPEDUNAREN BETEBEHARRAK / OBLIGACIONES DEL ADJUDICATARIO

1. ZERBITZUAK BETE BEHARREKO GUTXIENEKO EZAUGARRIAK /CARACTERÍSTICAS MÍNIMAS A CUMPLIR POR EL SERVICIO

Kafetegi-zerbitzua 2. mailakoa izango da. Jatetxe-arloko zerbitzua eman ahal izango da.

El servicio de cafetería será de categoría 2ª. Se podrá dar servicio de restauración.

Esleipendunak taberna-jatetxe zerbitzua, otorduak barne, Alkartasuna Jubilatuen Zentroan eman beharko du, arreta eta zaintza egokiarekin, legez eskatutako higiene eta osasun baldintzak errespetatuz eta dagozkion zergak ordainduz.

El adjudicatario deberá prestar el servicio de bar-restaurante, incluidas comidas, en el Centro de Jubilados Alkartasuna, con la debida atención y cuidado, respetando las condiciones higiénico-sanitarias legalmente exigidas y abonando los impuestos correspondientes.

ANOETAKO UDALA

Lokalaren atzeko eremua herriko Alkartasuna Jubilatu Elkarteko kideentzat erreserbatua egongo da 17.00etatik 20.30ak arte. Esleipendunak taberna-jatetxea itxita duen egunetan herriko Alkartasuna Jubilatu Elkarteko kideak beraien eremuan sartu ahal izateko 2 giltza jarriko dira beraien eskura.

La zona trasera del local estará reservada a los miembros de Alkartasuna Jubilatu Elkartea de la localidad de 17.00 a 20.30 horas. Los días que el adjudicatario tenga cerrado el bar-restaurante se pondrán a su disposición 2 llaves para que los miembros de la Asociación de Jubilados Alkartasuna de la localidad puedan acceder a su zona.

Alkartasuna Jubilatu Biltokiko kultur programazioa Anoetako Udaleko kultura sailarekin landu eta adostuko da.

La programación cultural de Alkartasuna Jubilatu Biltokia se elaborará y consensuará con el departamento de cultura del Ayuntamiento de Anoeta.

Edozein pertsona sartu ahal izango da lokalera, erretiratuta egon edo ez. Esleipendunak bertatik bidali ahal izango du besteekiko jokabide desegokia eta begirunerik gabea duen edozein pertsona.

Cualquier persona, jubilada o no, podrá acceder al local. El adjudicatario podrá enviar desde el mismo a cualquier persona que se comporte de forma inadecuada y desconsiderada para con los demás.

Esleipenduna arduratuko da bertan dauden altzariak, lanabesak, lokala eta gainerako objektuak mantentzeaz eta behar bezala erabiltzeaz.

El adjudicatario se encargará del mantenimiento y correcta utilización del mobiliario, utillaje, local y demás objetos existentes en el mismo.

Esleipenduna izango da ostatua eta terraza garbitzeko eta mantentzeko arduraduna, Udalak horri buruz ezartzen dituen arauen arabera.

El adjudicatario será responsable de la limpieza y mantenimiento del alojamiento y terraza, de acuerdo con las normas que al respecto establezca el Ayuntamiento.

EZ dira izango esleipendunaren kontura argindarra, gasa, telefonoa, aire egokitua eta sortu litekeen edozein motako kontsumo eta mantenu gastua. Gastu horiek Udalak beregain hartuko ditu.

NO serán de cuenta del adjudicatario la electricidad, el gas, el teléfono, el aire acondicionado y los gastos de consumo y manutención de cualquier tipo que pudieran generarse. Estos suministros serán soportados por el Ayuntamiento.

Bezero guztientzat diren zerbitzuen prezioak libreak izango dira.

Los precios de los servicios, destinados a todos los clientes, serán libres.

Soinua eta musika ezingo dira 75 (dB) baino handiagoak izan. Egoera bereziren batean muga hori gainditzea aurreikusten bada, Udalari jakinarazi beharko zaio eta baimena eskatu. Eskaera horiek Udalak aztertu eta baimendu beharko ditu kasu bakoitzean, taberna-jatetxea eta bizilagunak elkar errespetatuz betiere.

El sonido y la música no podrán superar los 75 (dB). En el caso de que en alguna circunstancia especial se prevea superar este límite deberá comunicarse al Ayuntamiento y solicitar autorización. Estas solicitudes deberán ser estudiadas y autorizadas en cada caso por el Ayuntamiento, siempre desde el respeto mutuo entre el bar-restaurante y los vecinos.

Eskaintza gastronomikoan lehentasuna emango zaio produktuak erabiltzeari eta tokiko saltokietan erosteari.

En la oferta gastronómica se priorizará el uso de los productos y la compra en los comercios locales.

ANOETAKO UDALA

Hondakinak: Zaborra sailkatzea derrigorrezkoa izango da (papera eta kartoia, ontzi arinak, beira, organikoa, olioa...) eta Anoetako Udalaren bilketa- eta tratamendu-sistemara egokitu beharko da.

Residuos: La clasificación de la basura será obligatoria (papel y cartón, envases ligeros, vidrio, orgánico, aceite,...) y deberá ajustarse al sistema de recogida y tratamiento del Ayuntamiento de Anoeta.

Zerbitzuak gutxienez bokatak, plater konbinatuak eta pintxoak izan beharko ditu.

El servicio deberá incluir como mínimo bocatas, platos combinados y pintxos.

Udal informazioa Alkartasuna Jubilatu Biltokian eskuragarri egongo da.

La información municipal estará disponible en Alkartasuna Jubilatu Biltokia.

Debekatuta dago joko- edo apustu-makinak instalatzea.

Está prohibida la instalación de máquinas de juego o apuestas.

Establezimendu publikoetarako indarrean dagoen elikagaien osasun-araudia bete beharko du.

Deberá cumplir la normativa sanitaria alimentaria vigente para los establecimientos públicos.

Zahar-etxean, 17:30etik 20:30era, tenperatura egokia (21º C) mantentzeko udazken eta neguko hilabete hotzenetan, hau da, urrian, azaroan, abenduan, urtarrilean, otsailean eta martxoan.

En el Hogar del Jubilado de 17:30 a 20:30 para mantener una temperatura adecuada (21º C) en los meses más fríos de otoño e invierno, es decir, octubre, noviembre, diciembre, enero, febrero y marzo.

2. IREKITZEKO EGUTEGIA /CALENDARIO DE APERTURA

Esleipendunak kontratuak irauten duen denboraldi guztian zehar eman beharko du zerbitzua eta urtero oporraldi bat hitzartu ahal izango du udalarekin, beti ere gehienez hilabetekoa izango delarik.

El adjudicatario deberá prestar sus servicios durante toda la duración del contrato y podrá concertar con el Ayuntamiento un período anual de vacaciones, que no podrá exceder de un mes.

Astelehenetik asteazkenera, egun batez, asteko atseden jaia hartu ahal izango da Udalarekin adostuta.

De lunes a miércoles se podrá disfrutar de un día de descanso semanal de acuerdo con el Ayuntamiento.

Debekatua egongo da asteburu, jai edo jai bezperetan ixtea.

Queda prohibido el cierre en fines de semana, festivos o vísperas de festivo.

Jai eguna egun berezia denean, asteko beste egun batez ordezkatu ahal izango da.

Cuando la festividad sea un día especial, podrá sustituirse por otro día de la semana.

3. ORDUTEGIA / HORARIOS

ANOETAKO UDALA

OROKORREAN

Establezimendua ixteko ordutegi orokorra 2. taldeari dagokiona izango da, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuan jasotakoa.

Irekitze ordutegi gutxienekoa hau izango da:

- Irekiera: 10:00etatik 22:00etara
- Ostirala, asteburuan eta jai egunetan: 10:00etatik 00:00etara
- Egun bereziak: festak, zerbait berezia dagoenean irekita egoteko beharra.

EN GENERAL

El horario general de cierre del establecimiento será el correspondiente al grupo 2, recogido en el Decreto 17/2019, de 5 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas.

El horario mínimo de apertura será el siguiente:

- Apertura: de 10:00 a 22:00 horas
- Viernes, fin de semana y festivos: de 10:00 a 00:00 horas
- Días especiales: fiestas, necesidad de apertura cuando haya algo especial.

4. EUSKARA

Ezinbestekoa da jendaurrean lan egingo duten langileek euskara jakitea eta erabiltzea.

Errotuluak, oharrak eta seinaleak piktogramen bidez egingo dira, euskaraz idatzitako informazio gehigarriarekin. Piktogramen bidez egiterik ez badago, euskaraz idatziko dira komunikazioaren edukia ezaguna denean edo maiz erabiltzen denean, edo jardueraren izaera edo jardueraren hartzailearen izaera. Aurrekoa bete ezin bada, komunikazioa ele bitan egingo da, euskarari lehentasuna emanez, aurretik Udaleko Euskara Zerbitzuarekin adostutako komunikazio elebidunaren formularen bidez.

Esleipendunek euskara edo bi hizkuntzak erabiliko dituzte megafonia bidezko komunikazioetan, produktuen erabilera-arauetan, etiketetan eta bilgarrietan, bai eta eskainitako zerbitzuak emateagatik sortutako dokumentazioa. Eredu elebiduna aukeratuz gero, euskarari emango zaio lehentasuna.

Es imprescindible el conocimiento y uso del euskera por parte del personal que va a realizar el trabajo cara al público.

Los **rótulos, las notas y las señales** se realizarán mediante pictogramas con información explicativa anexa redactada en euskera. En caso de que no se pueda mediante pictogramas, se redactarán en euskera cuando el contenido de la comunicación sea conocido o de uso frecuente, o cuando así lo exija la propia naturaleza de la actividad o del carácter del receptor de la misma. En caso de que no se pueda cumplir lo anterior, la comunicación se efectuará en bilingüe dando preferencia al euskera, mediante la fórmula de comunicación bilingüe consensuada previamente con el Servicio de Euskera del Ayuntamiento.

Los adjudicatarios emplearán el euskera o las dos lenguas en las comunicaciones a través de megafonía, en las normas de uso, etiquetas y envoltorios de los productos, así como en la documentación generada por la prestación de los servicios ofertados. En caso de optar por el modelo bilíngüe se le dará preferencia al euskera.

ANOETAKO UDALA

Hala ere, honako kasu hauetan bakarrik idatziko da euskaraz:

- Grafia euskaraz eta gaztelaniaz antzekoa denean.
- Piktograma bati laguntzeko azalpen-testua denean.
- Hitzak ezagunak direnean.
- Jardueraren izaerak edo/eta hartzaileen ezaugarriek hala eskatzen dutenean.

Jatetxeko **karta** euskaraz idatzita egon beharko da beti.

No obstante, se redactará solamente en euskera en los siguientes casos:

- Cuando la grafía sea similar en euskera y en castellano.
- Cuando sea un texto explicativo de acompañamiento de un pictograma.
- Cuando las palabras sean conocidas.
- Cuando así lo exijan la naturaleza de la actividad o/y las características de las personas destinatarias.

La **carta** del restaurante deberá estar en todo caso redactada en euskera.

5. BERDINTASUNA / IGUALDAD

Nolanahi ere, jarduera horietan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan aurreikusitakoa bete beharko da. Era berean, ez da onartuko eduki sexista duen kultura- edo aisialdi-ikuskizun, -adierazpen edo -jarduerarik egitea.

En cualquier caso, en estas actividades se deberá cumplir lo previsto en Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.
Asimismo, no se admitirá la realización de espectáculos, expresiones o actividades culturales o de ocio de contenido sexista.

Dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan, ahoz zein idatziz, ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistarik erakusten duen irudirik ere. Halaber, balio hauek sustatu behar dira emakumeen irudiari dagokionez: berdintasuna, ordezkaritza orekatua, kultur aniztasuna zein bestelako aniztasunak islatzeko, baterako erantzunkizuna eta genero rolen eta identitateen aniztasuna.

En toda documentación, publicidad, imagen o material, tanto oral como escrito, se hará un uso no sexista del lenguaje, así como de las imágenes que muestren discriminación o estereotipos sexistas hacia las mujeres. Asimismo, se deben promover valores como la igualdad en la imagen de las mujeres, la representación equilibrada, la diversidad cultural y otras diversidades, la corresponsabilidad y la diversidad de roles e identidades de género.

3. JARDUERAREKIN HASI AURRETIK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK / DOCUMENTACION A PRESENTAR ANTES DEL INICIO DE ACTIVIDAD

ANOETAKO UDALA

Jarduerak bete beharko du, besteak beste, jarduera proiektuan eta indarrean dagoen araudian baldintzatutakoa.

La actividad deberá cumplir, entre otros aspectos, lo condicionado al proyecto de actividad y a la normativa vigente.

Honako jarduera, jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpenera lotuta dago, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen I.D eranskinean jasotakoaren arabera. Hori horrela, jarduera hasi aurretik honakoa aurkeztu beharko da:

La siguiente actividad está sujeta a la comunicación previa de actividad clasificada recogida en el Anexo I.D de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre. En este sentido, con carácter previo al inicio de la actividad se deberá presentar:

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta eman izanaren ziurtagiria.
- Jarduera sailkatua hasteko aurretiazko jakinarazpenaren inprimakia.
- Berariazko erregelamenduen mende dauden instalazioetarako (instalazio elektrikoa, instalazio termikoa, gas-instalazioa, igogailua, suteen aurkako babes elementuak.) industria segurtasuneko araudietan jasotzen diren baimenak eta zerbitzuan jartzeak, hala badagokio.
- Osasun Sailean titular berria jakinarazi denaren ziurtagiria.

- Certificado de alta en el Impuesto de Actividades Económicas.
- Impreso de comunicación previa de inicio de actividad clasificada.
- Para las instalaciones sujetas a reglamentación específica (instalación eléctrica, instalación térmica, instalación de gas, ascensor, elementos de protección contra incendios.), las autorizaciones y puesta en servicio, en su caso, previstas en la normativa de seguridad industrial.
- Certificado de comunicación del nuevo titular en el Departamento de Salud.

4. ONDASUNAK ETA INSTALAZIOA KONTRATISTAREN ESKURA JARTZEA / PUESTA DE BIENES E INSTALACION A DISPOSICION DEL CONTRATISTA

Kontratua sinatzeko garaian Anoetako Udalak eta esleipendunak agiri sinatuko dute Anoetako Udalaren jabetzakoak diren eta esleipendunaren eskuetan uzten diren material eta makinariaren zerrendarekin. Material eta makinaria hori zaintzeko betebeharra du esleipendunak.

En el momento de la firma del contrato, el Ayuntamiento de Anoeta y el adjudicatario firmarán un documento con la relación del material y maquinaria propiedad del Ayuntamiento de Anoeta que se ponga a disposición del adjudicatario. El adjudicatario tiene la obligación de custodiar dicho material y maquinaria.

Agiri hori sinatu aurretik material eta makinaria guztia egoera onean dagoela ziurtatuko da.

Antes de firmar este documento se asegurará que todo el material y maquinaria se encuentra en buen estado.

Kontratua martxan jarri eta hilabeteko epean zerrenda horretako material eta makinarian

En el plazo de un mes desde la puesta en marcha del contrato, el Ayuntamiento procederá a la reparación de las averías que pudieran existir en el material y

ANOETAKO UDALA

egon daitezkeen matxurak Udalak konponduko ditu. Epe horretatik aurrera esleipendunaren ardura eta betebeharra izango dira gerta daitezkeen matxurak konpontzea, gastu horiek esleipendunaren gain izanez.

maquinaria de dicho listado. A partir de ese plazo será responsabilidad y obligación del adjudicatario la reparación de las averías que se produzcan, siendo a cargo del adjudicatario dichos gastos.

5. LOKALA ITZULTZEKO BALDINTZAK / CONDICIONES EN LAS QUE DEVOLVER EL LOCAL

Lokala lizitazioaren unean zegoen egoera berean itzuli beharko da, Udalak kontrakoa esan ezean.

El local deberá ser devuelto en la misma situación que en el momento de la licitación, salvo que el Ayuntamiento diga lo contrario.

Lizitatzaileak, lokalean obrak eginez gero, aldez aurretik Udalak onartu beharko ditu.

El licitador en caso de realizar obras en el local, éstas deberán ser previamente aprobadas por el Ayuntamiento.

Kontratua sinatzeko garaian Anoetako Udalak eta esleipendunak agiri sinatuko dute Anoetako Udalaren jabetzakoak diren eta esleipendunaren eskuetan uzten diren material eta makinariaren zerrendarekin. Esleipena amaitutakoan material eta makinaria hori berriro Udalaren eskuetara itzuliko da.

En el momento de la firma del contrato el Ayuntamiento de Anoeta y el adjudicatario firmarán un documento con la relación del material y maquinaria propiedad del Ayuntamiento de Anoeta que se pone a disposición del adjudicatario. Una vez finalizada la adjudicación, este material y maquinaria volverá a manos del Ayuntamiento.

Esleipendunaren betebeharra izango da agiri horretan zehazten den material eta makinaria guztia egoera onean Udalaren eskura uztea.

El adjudicatario estará obligado a poner a disposición del Ayuntamiento, en buen estado, todo el material y maquinaria que se especifica en dicho documento.

Idazkaria

JON BURGAÑA AGOUES - 34096516M

Digitalki sinatuta norengandik: JON BURGAÑA AGOUES - 34096516M
Data: 2026.09.24 13:49:43 +02'00'